

Ezpalak

JON TORNER

Eva Yerbabuenak zabalduko du Dantzaldiaren 10. edizioa



HAMARGARREN urteurrenean, Bilboko Dantzaldian aldaketa batzuk egitea erabaki dute antolatzaileek. Aurreantzean, udazkenean egin beharrean, apirilean eta maiatzean izango da. Gainera, obra garaikideez gain, dantza klasikoari, neoklasikoari eta hip hopari tarte egingo dioten piezak ere taularatuko dituzte, besteak

beste; eta hitzaldi eta mintegiak ere antolatuko dituzte, Euskal Herriko koreografo eta dantzari gazteen trebaketa sustatu nahian. Programan Lucia Lacarra dantzari zumaiarraren balleta eta Eva Yerbabuenaren flamenkoa sartu dituzte, batzuk aipatzearen. Hain justu, Yerbabuenak irekiko du Dantzaldia, hilaren 19an Euskalduna Jauregian eskainiko duen ikuskizunarekin.

Komiki jardunaldiak Bilbon

PACO ROCA, Edmond Baudoin, Toni Guiral, Pepe Gálvez, Jesús Redondo, Marina Ariza, Antonio Martín eta Manel Fontdevila moduko komikigileek parte hartuko dute Bilboko Alondegia antolatutako *Barre egiteko komikiak*, *negar egiteko komikiak*, *pentsatzeko komikiak* jardunaldi teoriko-praktikotetan. Apirilaren 14tik 18ra bitartean egingo dira EHUko Esperientzia Geletan. Bestalde, Alondegia Komiki Beka emango du bigarren bezala. Irabazleak urtebete emango du Alondegia (Frantzia) La Maison des Auteurs zentroan.

Luis Peña Gantxegi arkitekto oñatiarra hil zen pasa den ostegunean, Donostiako etxean, gaixotasun baten ondorioz. Euskal Herriko arkitekturaren eta kulturaren figurarik garrantzitsuenetakoa, hainbat proiektutan Eduardo Chillidarekin batera aritu da lanean, Donostiako Haizearen Orazian (1977an) eta Gasteizko Foruen Plazan (1982an), adibidez.

Hayo Freitag zinemagile alemaniarraren *Die Drei Ränber* filmak irabazi du Animabasauri jaialdiko Film Luze Onenaren Saria. Film laburren atalean, bestalde, Jérémy Clapin frantziarraren *Skebi* filmak irabazi du nagusi, eta DVD formatuko film laburrei zuzendutako Karratu saria *El empleo* argentinarrek jaso du. Bestalde, Zapatilla Films taldearen *Killer Kipula* lanak irabazi du Huhezinemak antolatutako bigarren film labur eta dokumentalen jaialdia.



Ipar Uribeko taldeak irabazi du Bertsolari Gazteen BBK Sariketa, Lea Artibairi finalean irabazita. Ipar Uribek bosgarren bezala irabazi du txapelketa.

Clemente Bernad argazkilaria iruindarrak 50 argazki zintzilikatu ditu Barañaingo Kultur Etxean. Aranzadi Elkartearen kideekin, hiru urtez, 36ko gerrako biktimen gorpuak lurretik ateratzeko lanetan argazkiak ateratu ditu.

● Haur eta gazte literaturaz aritu dira hainbat editore Gara egunkarian:

* **Iñaki Aldekoa (Erein):** «Gurean badago halako inertzia bat itzulpenen kontrako. Jatorriz euskaraz idatzita-koari balio erantsi bat batzen zaio. Nire ustez, kalitateari eta hizkuntzari, hau da, euskarari begiratu behar zaio. Kontua da gazteak non aukeratu eduki nahi duela eta hemengo idazleak ez dira nahiko».

* **Olatz Osa (Elkar):** «Elkar taldeko Tarttalo argitale-
txeak, esaterako, haurren produkzioa kanpoko argitale-
txeekin hitzarmenak lotuz, hau da, tiradak batuz lan
egiten du. Horrela ahalbidetu liteke euskaraz soilik argi-
taratzea ezinezkoa litzatekeen liburu mota bat euskaraz
ere argitaratzea».

* **Pello Elzaburu (Pamiela):** «Hizkuntza txikia gara eta gainera bi hizkuntza ditugu eskura. Ezin ditugu txapuzak egin, irakurleak bi hizkuntzetan duen liburu bera konparatuko baitu. Beraz, kalitatea eta prezioa parekatu behar ditugu, guri garestiago irten arren».

● **Mikel Valverde ilustratzaileak Aldaketa 16 aldizkarian:** «Zerbait egiazkoa eta zuzena kontatu nahi dut, publikoaren adina dena delakoa izanda ere. Publikoak [umeek] nire errespetu osoa merezi du, eta publikoak seriotasunez hartzea gustatzen zait, nahiz eta umorea eta sinpatia asko erabili (...) Geroz eta marra gutxiago erabiltzen dut adierazi ahal izateko, elementu gutxiago behar ditut berdina kontatzeko. Funtsean, hobeto marrazten dut eta ez dut behar etxe handi eta itsasora begirako bistak inspirazioa lortzeko».